

## Baketik-en bideoteka

Baketik-ek geurekin eta besteekin etikoki bizitzearekin zerikusia duten filmen eta dokumentalen bideoteka bat sortu du. Helburu hezigarria dauka soilik, ez komertziala. Baketik-ek doan uzten dizkie pelikulak eskatzen dituztenei: ikastetxeak, aisialdi taldeak, parrokiak, GKEak, mota guztietako elkarteak, familiak, lagun taldeak... Pelikula bakoitzak hau bezalako gida didaktiko bat darama. Edukiari buruzko azterketa eta gogoeta erraztea du xede. Gida bakoitzean pelikula ikusi duen Baketik-eko kolaboratzaile batek bi atal egin ditu: «gaia» eta «galderak pelikula ikusteko eta ondoren». Hau da pertsona honek pelikula ikusteko egiten digun iradokizuna. Nahi izanez gero, zeuk ere parte har dezakezu gustatu zaizkizun zenbait pelikulen iritziak bidalita. (Informazio gehiago [www.baketik.org](http://www.baketik.org) webgunean)

## Gaiak

### Gatazka, etika, desberdintasun soziala

**Gatazka.** Gizonezko batek auzokidearen horman lehio bat egin nahi du. Gizon hau tartean sartzeak etsai bihurtuko du.

**Etika.** Gizakiaren gainbehera morala, itxurakeria eta bere alderik lotsagarriena erakusten du pelikulak umore dosi handiekin.

**Desberdintasun soziala.** Gizarte-mailen arteko borroka oso present dago. Horrekin batera, maila bakoitzaren desberdintasunak besteekin harremanak izaterako orduan (familia, lagunak) eta eguneroko arazoei aurre egiteko.

### Filma ikusteko eta entzuteko iradokizunak

Pelikula bat modu askotara ikus eta entzun daiteke. Erreferentzi puntu batzuk eskaintzen ditugu. Zehazki pelikula modu honetara ikustea eta entzutea iradokitzen dizug:

**...barrura begira.** Gutako bakoitzari esanguratsu egiten zaigun horri buruz eta gure bizitzan bertan sorrarazten dizkigun galderi buruz hausnartu. Helburua ez da betirako erantzunak aurkitzea, uzten dizkigun arastoei erreparatzea baizik.

**...kanpora begira.** Taldean edota familian elkarrizketa sustatu. Kontua ez da ondorioetara iristea. Hauteman eta sentitu duguna konpartitzea, eta besteen hautemate ezberdina entzuten eta ulertzen saiatzea da.

**...ez bakarrik arrazoiarekin, baita bihotzarekin ere.** Une batez aurreiritzi ideologikoak eta edo aurrez ditugun ideiak albo batera utzi, pelikulak kontatzen digun horren harira, sentimenduek hitz egin dezaten.

**...eta denbora baten buruan, berriz ere pentsatu.** Adi erreparatu egun batzuen ostean pelikulak utzitako arrastoari. Arrasto hori ikusi dugunari buruzko hausnarketak eta istorioak gugan hartu duen biziak sortutako inpresioa da.

# El hombre de al lado

## Fitxa teknikoa

JATORRIZKO IZENBURUA: El hombre de al lado.

URTEA: 2009.

IRAUPENA: 101 min.

HERRIALDEA: Argentina.

ZUZENDARIA: Mariano Cohn, Gastón Duprat.

AKTORE-ZERRENDA: Rafael

Spregelburd, Daniel Aráoz, Eugenia Alonso, Enrique Gagliesi, Inés Budassi, Lorenza Acuña, Eugenio Scopel, Debora Zanolli, Bárbara Hang, Ruben Guzman.

EKOIZPEN-ETXEA: Aleph Media.

## Sinopsia

Amaierarik ez duela dirudien gatazka erakusten du pelikulak. Bitarteko horma soil batek bi mundu, jantzeko, jateko, bizitzeko bi modu zati ditzake. Batetik, Leonardo diseinatzaile fin eta arrakastatsua Le Corbusierrek egindako etxe batean bizi dena. Bestetik, Victor bigarren eskuko kotxeen saltzailea, arrunta, baldarra eta menderatzailea. Victorrek lehio bat egitea erabakitzen du argitasun gehiago edukitzeko eta hor hasten da arazoa: bakoitza bestearen esistentziaren jabe egiten da.

## Zenbait galdera...

### ...pelikula ikusi aurretik

- Eguneroko gatazkei buruz: Zein puntutaraino gai gara amore emateko? Erraza al da amore ematea? Amore ematea agintea galtzea esan nahi al du?
- Desberdintasun sozialei buruz: Gure inguru hurbilean gizarte-maila desberdinak al daude? Nolako da harreman hori?
- Etikari buruz: Beste maila soziala bat izanez gero, erabaki garrantzitsuak aldatu egiten al dira? Futsezkoa al da itxurak egitea, maila sozial goreneko batekin harremanak edukitzeko edo influentziak lortzeko? Hau etikoki eztabaidagarria edo kaltegarria dela uste duzu?

### ...pelikula ikusi ondoren

- Nola definituko zenuke Leonardoren familia? Zein elementu positibo ikusten dituzu bertan?
- Leonardo errealtatetik at bizi dela uste duzu? Kontraesanak al daude bere hitzetan? Leonardok zein puntutaraino izan nahi du Victor, mehatxatzen duen pertsona izan arren? Noren bizimodua iruditzen zaizu larriagoa edo jasanezinagoa? Zergatik?
- Desberdintasun sozialak eraginik ba al du beren arteko gatazkan? Eta aurre egiteko moduarekin? Etikoki jokatzeko dutela esango al zenuke? Gizarte-maila desberdinetakoak izan arren, elkarrekin normaltasunez bizi al izango lirateke?

Elena Aranbarriren laguntzarekin.

Cine para *vivir y convivir*

# El hombre de al lado



baketik

ELUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO  
LEHENKARIITZA PRESIDENCIA  
Bakergitza eta Elakidetzarako Idazkaritza Nagusia Sekretaria General para la Paz y la Convivencia  
Bakimena eta Giza Eskubideen Zuzendaritza Dirección de Víctimas y Derechos Humanos

baketik

943-251005

[www.baketik.org](http://www.baketik.org)